



4.14. Bulego-materiala

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barruan

Bulego-materiala kontzeptuaren barruan askotariko produktuak sartzen dira: sailkatzeko koaderno eta karpetak, idazteko materiala (boligrafoak eta lapitzak, kasu) CDak eta beste material ez-suntsikor batzuk, esaterako guraize, grapagailu edo zorrozkailuak.

Fitxa honetan, bulego-material horiek guztiak erosteko ingurumen-irizpideak ematen ditugu, bulego-papera erosteko izan ezik, beste kapitulu batean aztertu baitugu berariaz.

1.2. Non gaude

Bulego-materiala produktu-talde berezi bat da. Batetik, ez du ingurumen-inpaktu kaltegarri handirik, beste produktu-talde batzuen ondoan, eta bestetik, gastu ekonomikoaren aldetik, ez dute oso pisu handia erakundearen barruan.

Halaz guzti, aztergai gisa aukeratu ditugu, administrazioan diharduen langile orok erabiltzen dituen (papera bezala), ingurumenari buruzko barne-sentsibilizaziorako produktu-talde paregabea delako. Horrez gainera, eredugarria ere izan daiteke, eta herritarren artean aise hedatzeko modukoa.

1.3. Nola jokatu

Bulego-materialarekin lotutako ingurumen-inpaktuak gutxitzeko jarraibide batzuk hauek dira:

- Erositako produktuen aniztasuna mugatzea, zenbat eta produktu ezberdin gehiago, orduan eta zailagoa delako stocka eta eskaerak kontrolatzea.
- Materiala arduraz erabiltzea.
- Eskaerak zentzuz egitea, enpresa hornitzailearen joan-etorriak gutxitzeko.
- Kalitatezko produktuak, berrerabilgarriak eta berriz kargatzekoak erostea. Hala, produktuaren balio-bizitza luzatzen da, eta erosketa-premiak murriztu.
- Substantzia problematikoak dituzten produktuak baztertzea, esate baterako, disolbatzaile organiko lurrunak dituztenak (arkatz markatzaile fluoreszente, lekeda



eta zuzentzeko likido batzuek halakoak dituzte) edo ingurumen-inpaktu handiko prozesu eta/edo materialekin ekoizten direnak.

- Banakako bilgarrietan datozenak ez erosten saiatzea, eta neurriak aplikatzea hornidura-garaian bilgarriak eta ontziki murrizteko.
- Hondakinak ongi kudeatzea.



2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola gutxitu kontsumoa

Bulego-material berria erosteko premia sortzen denean, lehenbizi pentsatu behar da zer den beharrezkoa eta kontsumoa nola gutxitu daitekeen.

Ezer baino lehen, bulego-materiala (adibidez, karpetak, artxibategiak, zorroak...) departamentuan bertan edo zenbait departamenturen artean berrerabiltzea gomendatzen da. Horretarako, biltegi bat edo eremu bat izan behar da (armairu txiki bat besterik ez bada ere) erabilitako material hori gordetzeko, gero berrerabiltzeko.

Bigarrenik, garrantzitsua da plan bat prestatzea erosi beharreko artikulua ezberdinen kopurua pixkana-pixkana gutxitzeko, hau da, material-aniztasuna murrizteko, horrek aukeratzeko ahalmena murriztea badakar ere.

Horrez gainera, balio-bizitza luzeko artikulua erosi behar dira, baita berriro kargatzeko produktuak eta horien kargak ere, epe ertainera erosten aritu beharra saihesteko. Soltean edo ontziratatu gabe, edo ontzi handitan, erosten ere saiatuko gara, gero hondakin bihurtuko baitira.

Material-kontsumoa gutxitzeko hobekuntzez gainera, hornidurretan kontsumoa gutxitzeko neurriak ere har daitezke. Ontziei dagokienez, materiala kaxa berrerabilgarrietan entregatzea exijitu diezaiokegu enpresa hornitzaileari, edo hala egitea adostu dezakegu. Joan-etorriei dagokienez, eskariak egiteko maiztasun bakarra zehaztu behar da guztientzat (hiru hilabete behin, hilean behin edo hamabostean behin izan daiteke, erakundean bertan biltegitartzeko dagoen tokiaren arabera) bidaia-kopurua ahal den gehiena murrizte aldera. Eskariak egiteko aplikazio elektronikoak (programak edo webguneak) baliatzea lagungarri izan daiteke paper gutxiago kontsumitzeko eta eginkizun horri denbora gutxiago eskaintzeko.

2.2. Nola ezagutu benetako beharrak: adierazleak

Bulego-materialaren erosketei buruzko informazioa izateko, erregistro zehatza eraman behar da, sail bakoitzean zer artikulua erosi diren eta denbora-tarte zehatz batean zer kopuru eskatu diren jakiteko.

Erregistro hori xehetasunez egiten bada, errazagoa izango da produktu-aniztasuna murrizteko neurriak hartzea. Horrez gainera, artikulua ez-suntsikorren (grapagailuak, zulagailuak eta abar) ordezte-maiztasuna zein den jakingo dugu, eta bide batez, haien iraunkortasuna. Mota horretako artikuluen iraunkortasunak ahal den handiena izan behar du, eta zenbait funtzio bateratzen dituztenak hobesten eta erabiltzaile bat baino gehiagoren artean partekatzen saiatu behar da.

2.3. Zer eta nola erosi

Bulego-materialaren kontsumo gutxitzeko aukera guztiak aztertu ondoren, erosketan ingurumen-irizpideak txertatu behar dira.

Oro har, artikuluen zerrenda oso luzea izaten da, eta horrek hornitzaileak homologatzeko prozesua zein ingurumen-irizpideak txertatzeko eta gero kontrolatzeko zailtzen ditu. Beraz, lehen esan dugun moduan, erosi beharreko produktuen aniztasuna murrizten saiatu behar da, barneko kontsulta-prozesuen bidez.



48. KASUA: Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-sailak, erosketak eta kontratuak arrazionalizatzeko eta ingurumen-irizpideak sartzeko jardueren artean, bulego-materialaz hornitzeko kontratuari heltzea erabaki zuen.

Batetik, erosketa-kontratuko artikuluen aniztasuna eta kopurua arian-arian gutxitzeko ekintzak gauzatu ziren, eta bestetik, produktu zehatz batzuetan ingurumen-irizpideak txertatzekoak.

2005 eta 2009 artean, 60 artikuluko inguru ezabatu dira, produktua erosteari utzi zaiolako erabat, edo produktu beraren artikuluko desberdin gutxiago erosten direlako (adibidez, hamar motatako gutun-azal barrubigunak erostetik, sei erostera pasatu dira, zazpi grapagailu desberdin erostetik, bi erostera, edo sei guraize-mota erostetik, hiru erostera).

Produktuen ingurumen-ezaugarriak dagokienez, lapitzak lakatu gabeko zur naturalakoak izatea, lekeda-barrek disolbatzaile organikorik ez izatea, edo koadernoak eta libretak % 90eko zurtasun-mailadun paper birziklatuzkoak izatea zehaztu dute, besteak beste.

Administrazio gehienetan, era zentralizatuan erosten da materiala, hornitzaile bakar bati, eta material-premien arabera egiten dira eskariak. Eskaerak egiteko pausoa bizkortzeko, aplikazio informatikoa izatea eska diezaioke administrazioak hornitzaileari.

Une zehatz batzuetan, edo kontratuan sartuta ez dauden produktu berezien kasuan, departamentuek aukera izaten dute produktua zuzenean erosteko beste enpresa batzuei. Egoera horretan aintzat hartu behar diren ingurumen-jarraitibideak eman behar zaizkie beraz.

2.4. Nola kudeatu dagoeneko erabiltzen ez diren produktuak eta hondakinak

Bilgarriak eta ontziak gutxitzeko eta berriro kargatzeko produktuak eta luze irauten duten produktuak erosteko neurriak aplikatu arren, beti sortuko dira hondakin batzuk artikuluen balio-bizitza amaitzean.

Hondakin horiek egoki kudeatzeko, gaika bildu behar dira. Ez du ezertarako balio artikulua eta bilgarri birziklagarriak erosteko, gero modu egokian ez badira tratatzen.

Kontratazioan ingurumen-irizpideak sartu badira, hondakin gehienak hiri-hondakinen parekoak izango dira (nagusiki, papera/kartoia eta plastikoak), eta bereizita biltzeko edukiontzia izango ditugu. Hondakinen zati bat hondakin bereziak izango dira (sprayak, CDak, ekipo elektronikoa...), egoki kudeatzeko toki espezifiko batean bildu beharrekoak. Horretarako, sail edo arlo bakoitzean hondakin berezientzako berariazko edukiontzia jarri behar dira. Garbiketa-zerbitzuak behar bezala kudeatu behar ditu, eta baimendutako kudeatzaileei entregatzea bermatu.

49. KASUA: Sarbide

Sarbide euskal enpresak (Ingurumen Ministerioak diruz lagundua), beste enpresa batzuekin elkarlanean, CEDERIKA sortu zuen, CD eta DVD hondakinei era askotako birziklatze-irtenbideak emateko, ordura arte ez baitziren ongi birziklatzen.

Ekimen horri esker, administrazio askok edukiontzi bereziak dituzte bulego eta eraikinetan banatuta hondakin berezi horiek bereizirik biltzeko. CEDERIKAK entregatzen duen paketeak, edukiontzia ez ezik, diskoetako informazioa suntsitzeko gailu bat, informazio-kartelak, atxikipen-ziurtagiria, eta edukiontziak jaso eta bidaltzeko zerbitzua ere sartzen dira.





3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

3.1. Materialak eta ekoizpen-prozesuak

Ingurumen-inpaktuak handiagoak edo txikiagoak izango dira, bulego-materiala fabrikatzeko erabiltzen diren produktu eta materialen arabera.

Batetik, osasun eta ingurumenean eragin kaltegarriak dituzten materialik gabeko artikulua hobetsiko dira. Adibidez:

- Produktu lehorrak edo oinarri ura dutenak, disolbatzaile organiko lurrunkorrak dituztenen ordez (arkatz fluoreszente, zinta zuzentzaile edo lekeden kasuan, adibidez),
- polipropilenoazko (PP), polietilenoazko (PE) edo zelulosa azetatozko plastikoak, plastiko halogenatuen (PVC, adibidez) ordez, edo
- lakatu gabeko produktuak.

Bestetik, material birziklatu asko duten artikulua lehenetsiko dira.

Halaber, bulego-materiala ekoizteko prozesua aintzat hartu behar da, eta ingurumenean kalte gutxiago egiten dutenak aukeratzeko saiatu. Adibidez, honelakoak:

- Klororik gabeko (TCF) paperez eginak.
- Baso-ustiapen iraunkorretik datorren zurez eginak (FSE, PEFC edo antzekoak).
- I. motako ekoetiketaren baten irizpideei jarraituz egindakoak (Aingeru Urdina, Zisne Nordikoa, Europako Etiketa Ekologikoa...).

3.2. Iraunkortasuna eta berriz kargatzeko aukera

Bulego-materialaren erosketan, artikuluek kalitatezkoak, iraunkorrak eta diseinu soilekoak izan behar dute, balio-bizitza luzatzeko. Aurrezteko helburu horri berari begira, berriz kargatzeko artikulua eta horien kargen erosketaren lehenetsi behar da.

Hala, produktu berri gutxiago kontsumitzen dira, eta dirua aurreztu.

3.3. Birziklagarritasuna

Natura-baliabideak aurrezteko, bulego-artikulua osatzen dituzten materialek erraz birziklatzekoak izan behar dute (adibidez, papera, PPA edo PEa) eta material bakarrekoak. Horiek horrela, kartoizko artxibategiak edo karpetak plastikoz forratuak ez daitezela izan saiatu behar da, adibidez, edo guraize, grapagailu eta antzeko beste produktu batzuk metalezkoak izatea soilik, plastikozko zatirik gabe.

3.4. Bilgarriak

Bulego-materiala aleka paketzeko joera handia eta neurrigabea dago gaur egun, eta horren ondorioz behar baino hondakin gehiago sortzen da. Hortaz, hornitzaileak produktua soltean, aleka paketatuta gabe eta ahal den bilgarri gutxienarekin ekar dezan ahalegindu behar gara, eta hornitzen dizkigun artikulua material bakarrekoak, birziklatutako material asko dutenak eta/edo erraz bereizteko materialekin eginak izatea, hondakina ongi kudeatu eta gero birziklatzeko.

50. KASUA: EITB taldea

Bere egoitzak bulego-materialez hornitzeko kontratua lehiaketara atera zuen EITB taldeak 2009ko martxoan, eta ingurumen-irizpideak ere sartu zituen oinarrietan. Ingurumen-irizpideak, oro har, esleipen-irizpide gisa, hau da, produktu bakoitzerako irizpideak zehaztu gabe, sartzeko erabakia hartu zuten, kasu honetan, kontratazio-arduradunek. Horrela eginez, eskaintza-aukerak asko zabaltzen ziren arren, produktuen zerrenda labur samarra zenez, balorazioak ahalegin handiegia ez ziela eskatuko iritzi zioten. Irizpide horiek puntuen % 25eko balioa zuten (balorazio osoaren laurdena).

Baldintza-orriari atxikita, hornitu beharreko produktuen zerrenda eta artikulua bakoitzetik kalkulatu zuten erosketa-bolumena zehaztu zituzten, eta tarte bat zegoen enpresak produktu bakoitzaren prezio unitarioa eta artikuluetan proposatu zituzten ingurumen-hobekuntzak jartzeko. Horretarako, irizpideen zerrenda bat gehitu zen baldintza-orrian, kode zehatz batekin, enpresek proposatutako hobekuntzak aise identifikatzeko eta baloratzeko. Kodifikazioa hau zen:

KODEA	INGURUMEN IRIZPIDEA
1	PP (polipropileno), PE (polietileno) edo zelulosa azetatozko substantzia plastikoak (material birziklatua edo berria)
2	Birziklatutako plastiko-edukia (adierazi portzentaje zehatza)
3	Oinarritzat ura duten produktu likido, kola eta itsaskiak
4	Lakatu gabeko produktuak
5	Material bakarreko produktuak
6	Paper edo kartoi % 100 birziklatuzko produktuak
7	Klororik gabeko (TCF) paper edo kartoizko produktuak
8	Ekoetiketaren bat duen paper edo kartoizko produktuak (Aingeru Urdina, DGQA, Zisne Nordikoa, FSC edo parekoa)



4. Ingurumen ziurtagiriak

4.1. Ekoetiketa ofizialak

Erakunde ofizialek ematen dituzten eta bulego-materialaren erosketa berdean aintzat hartu behar diren I. motako ekoetiketa garrantzitsuenak hauek dira:

ETIKETA	LOGOTIPO OFIZIALA	DESKRIBAPENA
ANIGERU URDINA (Alemania)		Paperezko/kartoizko artikulua (karpetak, artxibategiak, zorroak...).
ZISNE NORDIKOA (Herrialde eskandinaviarrak)		Paperezko/kartoizko artikulua (gutun-azalak, libretak...) eta idazteko artikulua.
NF-ENVIRONNEMENT (Frantzia)		Paperezko/kartoizko artikulua (karpetak, libretak, gutun-azalak...).
INGURUMEN KALITATEAREN BERME BEREIZGARRIA (Katalunia)		Paperezko/kartoizko, material konpostagarriko, plastiko birziklatuzko eta zurezko artikulua.

4.2. Beste ziurtagiri eta logotipo batzuk

Baliagarri izan daitezkeen beste ziurtagiri batzuk:

	LOGOTIPOA	DESKRIBAPENA
Produktu guztietarako		Produktuaren birziklatutako material-edukierari buruzko informazioa ematen duten auto-adierazpena.
Paper edo zurezko produktuarentarako		Produktua fabrikatzeko materiala era iraunkorrean kudeatutako baso edo ustiapenetatik datorrela edo material birziklatuz egina dela ziurtatzen dute.
Plastikozko produktuarentarako		Produktua biodegradagarria dela ziurtatzeko balio dute. EN 13432 arauaren arabera dela bermatu behar da.

Sinbolo edo izendapen batzuek ez dute produktuaren ingurumen-hobekuntzari buruzko informaziorik ematen, eta beraz, ez dute balio erosketara berderako. Hona hemen zenbait adibide:

	LOGOTIPOA	DESKRIBAPENA
<p>PUNTU BERDEA</p>		<p>Adierazten du enpresa ontziratzaileak ontzi- eta bilgarri-hondakinak kudeatzeko sistema integratua-ri (Ecoembes) kanon bat ordaindu diola, hondakin bihurtutakoan kudeaketa bermatzeko.</p> <p>Hortaz, ontzi-hondakinaren kudeaketaz informatzen du soilik, eta ez ontzi horren ingurumen-kalitateaz (are gutxiago, jakina, ontziaren edukiarenaz).</p>
<p>MÖBIUS ZIRKULUA</p>		<p>Sinbolo hau produktu birziklagarri zein birziklatueta-rako erabiltzen da.</p> <p>Beraz, barruan ez badu birziklatutako material-portzentajerik adierazten, berak bakarrik ez du balio produktuaren ingurumen-hobekuntza ezagutzeko (birziklatua den ala ez, eta zer portzentajetan).</p>
<p>«Produktu ekologikoa», «Produktu arduratsua ingurumenarekin» edo antzeko auto-adierazpenak</p>		<p>Esaldi generikoak dira, informazio zehatzik gabeak, eta beraz, ez dute inolako baliorik erosketara berdearen inguruko erabakiak hartzeko.</p>



5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Ekoizle gehienak, bai mundu-mailan dihardutenak, bai tokian-tokian dihardutenak, aspalditik ari dira bulego-material garbiagoak eta ingurumenarekin arduratsuagoak direnak ekoizten. Horrenbestez, ingurumenaren aldetik hobeak diren bulego-produktuen aukera zabalagoa dago gaur egun.

Nolanahi ere, erosketa ez zaio zuzenean ekoizleari egiten, baizik eta banatzaileari. Haiek helarazten diote produktua kontsumitzaileari. Merkatuan irteera handiagoa izango duela iruditzen zaion produktua aukeratzen du banatzaileak, baina hori aldatu egiten da herrialde batetik bestera, publiko objektiboaren erosketa- eta balio-lehentasunen arabera. Banatzailearen aukera nolakoa, halakoa izango da ingurumenaren aldetik hobeak diren produktuak eskuratzeko aukera kontsumitzailearentzat (horien artean, administrazioarentzat).

Gure testuinguruan, ingurumen-faktoreak gero eta garrantzia handiagoa du, baina oraindik ez da faktore nagusia. Horregatik, banatzaile askok ez dituzte ingurumenarekin arduratsuagoak diren produktuak, edo ez dituzte produktuen ingurumen-ezaugarriak ezagutzen.

Ondorioz, haiekin lan egin beharko da, foro eta bileren bidez, produktu-katalogoa ingurumen-irizpideekin osatzen joan daitezkeen, merkatuan horrelako produktuak badaude eta.



6. Ingurumen irizpideak

6.1. Prozedura ireki bidez kontratatzeko irizpideak

Kontratazio-modalitate honetarako proposatzen diren irizpideak Ihoberen webgunean daude. Produktu-talde honetarako, bi eskakizun-maila proposatzen dira: oinarrizkoa eta aurreratua.

Administrazioaren egoerara ondoen egokitzen den eskakizun-maila aukeratu ondoren, maila bakoitzerako, ingurumen-irizpideez gainera (espezifikazio teknikoak), esleipen-irizpideen eta eskaintza teknikoaren edukiaren proposamena ere aurkituko dugu. Eskaintzaileek informazioa nola aurkeztu behar duten zehazten duen azken atal horrek eskatu diegun informazioa errazago biltzeko balio du.

Kapitulu horren amaieran hornitzaileentzako *checklista* jaso da, eta baldintza teknikoen orriaren eranskin gisa erabiltzea proposatzen da, proposatutako ingurumen-irizpide bakoitza betetzen den nola frogatu edo egiaztatu jakiteko informazioa baitu.

6.2. Prozedura hitzarturako irizpideak

Prozedura hitzartu bidez kontratatzeko, prozedura irekirako ezarritako irizpide berak erabiltzea proposatzen dugu.

6.3. Zuzeneko erosketarako irizpideak

Ingurumena errespetatzen duten produktuak erosteko modurik errazena 4. atalean zehaztu ditugun ekoetiketa ofizialetakoren bat dutenak erostea da. Kasurik sinpleena Aingeru Urdina ziurtagiria duten paperezko produktuak dira.

Beste aukera bat da erosi nahi diren produktu zehatzen aukeraketan ingurumen-irizpideak aplikatzea. Hurrengo orrialdeko taulan, bulego-material nagusietarako irizpide horietako bakoitza zehazten da.



ARTIKULUA	INGURUMEN-IRIZPIDEA
ARTXIBATEGIAK, AURKIBIDE ETA BEREIZGAILUAK, KARPETAK ETA AZPIKARPETAK	Material bakarreko produktuak (estaldurarik gabe) Paper edo kartoi % 100 birziklatuzko eta TCF produktuak PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak Ekoetiketaren bat duten produktuak
ZORROAK ETA DOSSIERRAK	Paper edo kartoi % 100 birziklatuzko produktuak PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak Ekoetiketaren bat duten produktuak
LIBRETAK, BLOKAK, GUTUN-AZALAK ETA OHAR ITSASGARRIAK	Material bakarreko produktuak Paper edo kartoi % 100 birziklatuzko eta TCF produktuak Ekoetiketaren bat duten produktuak
BOLIGRAFOAK	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak Produktua gehi ordezeko karga
ERROTULADORE ETA ARKATZ MARKATZAILEAK	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak edo Produktu lehorrak PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak Produktua gehi ordezeko karga
LAPITZAK	Lakatu gabeko lapitzak FSC zurezko lapitzak Portaminak gehi ordezeko karga
BORRAGOMAK	PP edo kautxu naturalezko produktuak
KOLAK ETA LEKEDAK	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak Produktua gehi ordezeko karga
ZINTA ITSASKORRAK	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
ZUZENTZEKO MATERIALA	Produktu lehorrak PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak Produktua gehi ordezeko karga
GURAIZEAK, GRAPAGAILUAK, ZULAGAILUAK, ZORROZKAILUAK	Material bakarreko produktuak